



1. "Etxean kontu-kantari"

Aurreko buletinean zabaldu genuen ildoari helduko diogu, zuen etxeetan, hurrekin batera, jolas eta kantari aritzeko. Bidaiak ere erabili ditzakezue hainbat kantuekin libertitzeko. Haur poesia jolas egiteko da, kantatzeko edota besteei esateko... Beraz, poesia ez da kutxa batean gorde behar, ezta CD batean ere. Poesiarekin batera keinua dator edota mugimendua: atzamarrak kontatu, zotz egin korrika ateratzeko... Ipuinak berriz, kontatzeko dira, helduek hurrei kontatzeko. Gure CDetan ipuin ereduak eskaintzen ditugu: zuek entzun, barneratu eta zuen hitzekin kontatzeko. Ipuinaren zeraz haurra jabetzen denean, dator CDtik entzuteko garaia, lehenago ez. Gaur ere proposamen batzuk aukeratu ditugu zuei eskaintzeko, ea gustukoak dituzuen [etxeko jolasak](#).

2. "Ipuinez ipuin"

Haur txikientzat kontatzen diren ipuinen ezaugarriak oso zaharrak dira, tradizioz transmititu dira gaurdaino. Aurreko buletinean azaldu genuen horietako bat: "[Txita polita](#)". Gaur haren antzeko ipuin bat eskainiko dizuegu, ingeles tradizioetik jasota. Jatorrian, labe batetik ihesi doan opiltxo baten istorioa kontatzen du; gose garai haietan denek harrapatu nahi zuten jateko, lortu ote zuen inoren sabeletik ihes egitea? Gaur egun ez dakigu inor mugituko ote zen hainbeste opiltxo bat harrapatu nahian. Agian gurpil bat, patinete bat edota horrelako zerbaiten bidez ordezkatu beharko genuke motibazioari heltzeko? Ez dakigu, eskema argi dago erabili nahi baduzue, eta "[Opiltxo jostalaria](#)" ipuinaz gozatu.

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Zenbaitetan kosta egiten zaigu poesia erabiltzea. Batzuetan ez dugulako nahikoa ezagutzen, beste zenbaitetan ez dakigulako nola erabili, eta askotan poesia zerbait zail eta ilunarekin lotzen dugulako. Bularretik Mintzora egitasmoan ahalegin berezi bat egin nahi dugu haur poesia eta hitz jolasen alde; haur txikientzat jolas aukera bereziak eskaintzen dituelako eta, aldi berean, hizkuntzaren garapenean makulu paregabea suertatzen delako haurrentzat. Horregatik, euskal haur poesiaren baliabide egokiak eskaintzen saiatzen gara haren erabilera hedatzeko. Haur hizkuntzaren lagungarri paregabea delako eta haurren gozamenaren eragile aparta. Atal honetan [Haur Poesiaren transmisioa eskolan](#) dokumentua aurkituko duzue, jeneroz jeneroko ikuspegi pedagogiko baten barne.

4. "Egitasmoa martxan"

Bi albiste ekarri nahi ditugu oraingoan atal honetara:

- 2014-15 ikasturtean bi herri gehiago izango ditugu BM egitasmoan parte hartzen, Hernani eta Eskoriatza, hain zuzen. Azpimarratu nahi genuke Eskoriatza parte hartuko duen bosgarren herria dela Debagoiena bailaran Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatirekin batera.
- Langaitz Ikastolako haurrak jo eta ke ari dira jolasak, olerkiak eta ipuinak ikasi eta ikaskideen aurrean aurkezten. Ikusi [hemen](#) aletxo bat.